


Euskal AEko eraikuntzaren kostuek % 0,3 egin zuten behera 2008ko azaroan

Azken hamabi hilabeteetan (2008ko martxoa, 2007ko martxoarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuek % 6,9ko igoera izan dute.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizea % 0,3 jaitsi zen 2008ko martxoan, aurreko hilaren aldean. Ondorioz, azaroaren urte arteko tasa % 6,9ra heldu zen, Eustatek emandako datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2008



(*)Gehikuntza azaroako urte artekoa da

Lan-eskuaren kostuak ez zuen aldaketarik jasan (% 0,0) 2008ko azaroan. Aitzitik, lehengaien kostuak % 0,4 jaitsi ziren.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera ezberdina izan zuten: Obra Zibilen kasuan, % 2,2ko jaitsiera gertatu zen aurreko hilaren aldean. Eraikuntzaren lehengaien kostuak, aldiz, % 0,1 igo ziren. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaerak intentsitate ezberdinak erakusten ditu. Izan ere, Eraikuntzako lehengaien kostuak % 7,4 hazi ziren eta Obra Zibileko lehengaienak % 5,6.

Azaroan, urriaren aldean, prezio hazkunderik nabarienenak kontsumitutako honako lehengailetan eman ziren: mineral ez metalikoak (% 1,6), industria kimikoa (% 0,7), material elektronikoa (% 0,6) eta material elektrikoa (% 0,6). Aitzitik, honakoek prezioen beherapena jasan zuten: petrolioaren birfinketa (-% 12,7), metalurgia (-% 4,3), energia elektrikoa eta gasa (-% 1,3), industria ez metalikoa (-% 0,9) eta altzairugintza (-% 0,1).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, ondokoak dira izan azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasarik handienak izan dituztenak: energia

elektrikoa eta gasa (% 23,0), mineral ez metalikoak (% 13,9), ura (% 11,4) eta metalurgia (% 8,6). Bestalde, ondoko lehengaiak beherapenak edo hazkunde txikiagoak izan zituzten urte arteko prezioetan (2008ko azaroa, 2007ko azaroarekin alderatuta): petrolioaren birfinketa (-% 6,1), material elektronikoa (-% 1,2), industria ez metalikoa (% 1,7), zuraren industria (% 2,0) eta makineria (% 2,5).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA
2008KO AZAROA

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	117,0	-0,3	6,9	6,4
ERAIKINAK	117,0	0,1	7,2	6,6
OBRA ZIBILA	117,1	-1,6	5,8	5,6
LEHENGAIEN KOSTUA	117,2	-0,4	7,1	6,4
ERAIKINAK	117,1	0,1	7,4	6,7
OBRA ZIBILA	117,3	-2,2	5,6	5,3
LAN-ESKUAREN KOSTUA	116,6	0,0	6,3	6,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago: Euskal Estatistika Erakundea
 Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe +34-945-01 75 01 Helb. elektronik.: eustat@eustat.es
 Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja
 Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01
 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es